

# 2020



## Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



**GAZTEEN EUSKAL**  
**BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO**  
**DE LA JUVENTUD**

978-84-457-3631-9



9 788445 736319

# 2020



## Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako  
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

**Argitaraldia:**

1a, 2022ko urtarrila

**Ale-kopurua:**

40 ale

**Egilea:**

Joffre López Oller

**Koordinazioa:**

Gazteen Euskal Behatokia

**Itzulpena:**

Gazteen Euskal Behatokia

**Maketazioa:**

Komunikazio Zuzendaritza  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

**Inpresioa:**

Eusko Jaurlaritzaren Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua.

**L.G.:**

LG G 00011-2022

**ISBN:**

978-84-457-3631-9




# AURKIBIDEA

## SARRERA

### I. atala:

#### ETXEBIZITZA LIBREA JABETZAN HARTZEAREN INGURUKO ADIERAZLEAK


1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua
2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria
3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea
4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera
5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria
6. Etxebizitza librearen batez besteko azalaren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea



### II. atala:

#### ETXEBIZITZA LIBREA ALOKAIUAN HARTZEAREN INGURUKO ADIERAZLEAK

7. Etxebizitza librea alokatzeko kostua
8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria
9. Merkatuko alokairu-errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea
10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera



### III. atala:

#### ETXEBIZITZA BABESTUA ESKURATZEAREN INGURUKO ADIERAZLEAK

11. Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua
12. Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua



## EMAITZA ESANGURATSUAK

### ERANSKINAK

#### I. eranskina:


##### ADIERAZLEAK ERATZEKO ERABILITAKO DATUAK

#### II. eranskina:

##### DATUEN ITURRIAK ETA METODOLOGIA OHARRAK

#### III. eranskina:

##### ADIERAZLEEN BALIOAK 30 URTEZ AZPIKO GAZTEEN ARTEAN




## Sarrera

Etxebizitza eskuratzea da gazteek autonomia lortu dutela eta helduarora behin betiko igaro direla adierazten duten faktoreetako bat. Bilduma honetan gazteek bere kabuz bizitzeko aurre egin behar duten kostu ekonomikoa kuantifikatzen saiatzen gara eta horretarako adierazle teorikoak eratzen ditugu. Teorikoak direla diogu batez besteko balioak hartzen ditugulako oinarri, banakako kasuistikak alde batera utzita.

Etxebizitza librea zein babestua erosketaren bidez edo alokairuaren bidez eskuratzeak dakarren kostu teorikoa adierazten duten hamabi adierazle kalkulatu dira. Kalkulatutako datuak eta beraien bilakaera 2016tik 2020ra (hau da, 2015eko Etxebizitza Legea<sup>1</sup> onartu ondorengo aldia) Euskadi osorako aurkeztzen dira, bai eta lurralde historiko bakoitzerako ere. Gainera, sexuaren eta adin-taldearen arabera bananduta azaltzen dira.

### Etxebizitza libre bat eskuratzeari buruzko 10 adierazle


Etxebizitza bat eskuratzeak dakarren kostua kalkulatzeko, alderatu dira 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteek batez beste kobratzen dituzten soldatak, alde batetik, eta urte jakin batean merkatu libreko etxebizitzek duten prezioa, bestetik.




#### Etxebizitza libre bat jabetzan zein alokairuan eskuratzeak

hauze adierazten du: zein ahalegin ekonomiko egin beharko lukeen gazte soldatadun batek bere kabuz ordaintzeko hipotekaren lehen kuota edo alokairu-errentaren lehen hilerokoa merkatu libreko prezioan.

Ahalegin ekonomiko hori honela azaltzen da: gazte horrek etxebizitza arrunt baten hipotekaren lehen kuota edo alokairu-errentaren lehen hilerokoa ordaintzeko bideratu beharko lukeen bere soldata garbiaren ehunekoa. Adierazlea eratzeko, erlazioan jartzen dira, alde batetik, urte jakin bateko 18-34 urteko gazteen batez besteko soldata garbiak eta, bestetik, urte berean salerositako etxebizitza libreen batez besteko eskriturazio-prezioak edo Eusko Jaurlaritzaren fidantzen erregistroan gordailututako alokairu-kontratuen batez besteko zenbatekoak. Etxebizitza jabetzan hartzeak dakarren kostua kalkulatzeko, aintzat hartzen dira, horiez gain, batez besteko interes-tasa eta kontratatutako hipoteka-kreditu berrien batez besteko iraunaldia.



**Gehieneko prezio onargarriak** eurotan adierazten du zein prezio izan beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza batek, hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren lehen hilerokoa gehienez hileko soldata garbiaren % 30 izan dadin.




**Merkatuko salmenta-prezioaren edo alokairu-errentaren eta gehieneko prezio onargarriaren arteko** diferentziari esker, eurotan detektatu daiteke merkatu libreko eskaintzaren eta gazte soldatadun batek bere kabuz, soldataren % 30 baino gehiago bideratu gabe, eskuratu dezakeenaren arteko arrakala.




**Etxebizitza libre bat erosteko edo alokatzeko behar den diru-sarreraren igoerak** adierazten du gazte baten soldata zein ehunekotan igo beharko litzatekeen gazteak bere kabuz etxebizitza bat erosi edo aloka dezan (salerosketa- edo alokairu-kontratuen batez besteko prezioen arabera), bere hileko soldata garbiaren % 30 bideratuta, hasieran behintzat.

<sup>1</sup>3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/06/1502853e.pdf> [Kontsulta: 2021/11/09]

Etxebizitza librea eskuratzeko kostuari buruzko zortzi adierazle horiek (lau etxebizitza erosteari buruzkoak dira eta lau alokatzeari buruzkoak) jabetzako etxebizitzarako bakarrik kalkulaten diren beste birekin osatzen dira. Bi adierazle horiek etxebizitzaren azalera hartzen dute kontuan, eta alokairuaren kasuan ez dira aplikatzen, zeren alokatzen diren etxebizitzaren kasuan ez baitauek ikerketa-urteetako etxebizitzaren azalerari buruzko datuen berri.



**Erosteke gehieneko azalera onargarria** da etxebizitza libre batek izan beharko lukeen azalera, hipoteka-kuotaren lehenengo ordainketak hileko soldata garbiaren % 30 ez gainditzeko



**Etxebizitza librearen batez besteko azalaren eta erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldeak** adierazten du (metro koadrotan) merkatu librean saltzen diren etxebizitzaren batez besteko tamainaren eta soldatapeko gazte batek bere kabuz, soldata garbiaren % 30 bideratuta, eskuratu ahal izango lukeen etxebizitza-tamainaren arteko aldea.

### Etxebizitza babestua eskuratzeari buruzko 2 adierazle

Bi adierazle hauek, etxebizitzarako politika publikoek aurreko egoerari dakarkioten kontrapuntua eskaintzen dute. Etxebizitza babestua, jabetzan zein alokairuan, soldatapeko gazteen emantzipaziorako laguntza da, etxebizitza babestuen baldintzak askoz hobeto egokitzen direlako gazteen finantzaketa-aukeretara.




**Jabetzako etxebizitza babestu bat eskuratzeko kostuak** adierazten du soldatapeko gazte batek bere kabuz etxebizitza babestua erosteko hipotekaren lehenengo kuota ordaintzeko bideratu beharko lukeen batez besteko soldata garbiaren proportzioa zein den.

**Alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratzeko kostuak** adierazten du gazte soldatadun batek, berak bakarrik, etxebizitza babestu baten alokairu-errenta ordaintzeko gorde behar duen hileko soldata garbiaren proportzioa.

### Beste datu batzuk

Soldatapeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteei dagozkien adierazle horiez gain, eranskinetan beste datu batzuk aurkezten dira: adierazleak sortzeko oinarri diren datuak, datuen iturriari eta kontuan hartu beharreko azalpen metodologikoei buruzko informazioa, bai eta eratutako adierazle hauek 30 urtetik beherako gazteen artean izango lituzketen balioak ere.

## I. Atala



Etxebizitza  
librea jabetzan  
hartzearen  
inguruko  
adierazleak





## Etxebizitza librea jabetzan hartzearen inguruko adierazleak

1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua **% 58,7**

---

2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria **114.254 €**

---

3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea **109.150 €**

---

4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera **% 95,5**

---

5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria **45,8 m<sup>2</sup>**

---


6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea **47,6 m<sup>2</sup>**

# 1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua


## DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz merkatu librean etxebizitza bat erosteko sinatutako hipoteka-maileguaren lehen kuota ordaintzera (merkatu libreko etxebizitzaren batez besteko salneurria kalkulatzeko pisu berriak zein bigarren eskukoak eta familia bakarreko etxebizitzak hartu dira aintzat).

Etxebizitza librea jabetzan hartzeak dakarren kostuaren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza librea jabetzan hartzeak dakarren kostua Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)



**1. taula.** Etxebizitza librea jabetzan hartzeak dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	53,6	41,0	52,2	61,0
	2017	55,1	43,3	52,2	64,9
	2018	54,1	44,6	52,4	60,4
	2019	55,8	46,6	53,4	62,7
	2020	58,7	48,6	55,4	66,9
Emakumeak 18-34 urte	2016	59,7	45,6	58,1	67,9
	2017	60,6	47,5	57,3	71,3
	2018	60,0	48,4	58,0	67,0
	2019	61,6	50,1	58,9	69,2
	2020	63,0	53,6	59,5	71,9
Gizonak 18-34 urte	2016	50,0	38,1	48,6	56,8
	2017	51,0	40,0	48,3	60,0
	2018	50,9	40,4	49,2	56,8
	2019	53,5	43,2	51,2	60,1
	2020	54,3	46,2	51,3	61,9
18-24 urte	2016	79,5	60,7	77,3	90,5
	2017	80,4	63,1	76,1	94,7
	2018	78,5	62,1	76,0	87,7
	2019	77,4	64,7	74,1	87,0
	2020	81,9	67,8	77,3	93,4
25-29 urte	2016	59,1	45,1	57,5	67,2
	2017	60,5	47,5	57,3	71,2
	2018	57,6	47,6	55,8	64,4
	2019	57,9	48,4	55,4	65,1
	2020	59,9	49,6	56,6	68,3
30-34 urte	2016	50,2	38,3	48,8	57,1
	2017	51,5	40,4	48,7	60,6
	2018	50,4	41,6	48,8	56,3
	2019	50,9	42,5	48,7	57,2
	2020	52,2	43,2	50,9	61,4

## 2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria


### DEFINIZIOA:

Etxebizitza libre batek –dela berria, dela bigarren eskukoa- izan beharko lukeen salneurria, hori erosteko sinatutako hipotekaren lehen hilerokoak ez lezan 18-34 urte bitarteko soldatapeko gazte baten hileko soldata garbiaren % 30 gainditu.

Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko salneurri onargarriaren bilakaera Euskadin (eurotan)



Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko salneurri onargarria Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)



**2. taula.** Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko salneurri onargarriaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	112.582	112.785	113.347	111.277
	2017	110.207	110.406	110.955	108.929
	2018	113.831	109.329	114.595	114.725
	2019	113.695	109.199	114.458	114.588
	2020	114.254	112.723	115.021	115.152
Emakumeak 18-34 urte	2016	101.146	101.328	101.833	99.973
	2017	100.314	100.495	100.995	99.151
	2018	102.675	100.806	103.365	103.482
	2019	102.990	101.707	103.682	103.799
	2020	106.313	102.109	107.028	107.149
Gizonak 18-34 urte	2016	120.911	121.129	121.732	119.509
	2017	119.103	119.318	119.912	117.722
	2018	121.059	120.793	121.873	122.011
	2019	118.489	117.972	119.285	119.421
	2020	123.433	118.552	124.262	124.403
18-24 urte	2016	75.961	76.098	76.477	75.080
	2017	75.553	75.689	76.066	74.677
	2018	78.443	78.539	78.970	79.060
	2019	81.921	78.682	82.472	82.565
	2020	81.804	80.708	82.353	82.447
25-29 urte	2016	102.234	102.418	102.928	101.048
	2017	100.404	100.585	101.086	99.240
	2018	106.811	102.588	107.529	107.651
	2019	109.513	105.182	110.248	110.373
	2020	111.878	110.379	112.629	112.757
30-34 urte	2016	120.404	120.621	121.222	119.008
	2017	118.003	118.216	118.805	116.635
	2018	122.182	117.350	123.003	123.142
	2019	124.649	119.719	125.486	125.628
	2020	128.506	126.784	125.257	125.399

### 3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea


#### DEFINIZIOA:

Etxebizitza librean (berri zein bigarren eskukoak) batez besteko salneurriaren eta 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, hipotekaren lehenengo kuota ordaintzeko gehienez hileko soldata garbiaren % 30 bideratuko balu, ordaindu ahal izango lukeen salneurri onargarriaren arteko aldea, eurotan azalduta.

Etxebizitza librean merkatu-prezioaren eta gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldearen bilakaera Euskadin (eurotan)



Etxebizitza librean merkatu-prezioaren eta gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)



**3. taula.** Etxebizitza librearen batez besteko salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	88.739	41.183	83.820	115.133
	2017	92.276	48.785	82.074	126.681
	2018	91.403	53.306	85.411	116.438
	2019	97.739	60.561	89.218	124.781
	2020	109.150	69.751	97.303	141.506
Emakumeak 18-34 urte	2016	100.175	52.640	95.334	126.437
	2017	102.169	58.696	92.034	136.459
	2018	102.559	61.829	96.641	127.681
	2019	108.444	68.053	99.994	135.570
	2020	117.091	80.365	105.296	149.509
Gizonak 18-34 urte	2016	80.410	32.839	75.435	106.901
	2017	83.380	39.873	73.117	117.888
	2018	84.175	41.842	78.133	109.152
	2019	92.945	51.788	84.391	119.948
	2020	99.971	63.922	88.062	132.255
18-24 urte	2016	125.360	77.870	120.690	151.330
	2017	126.930	83.502	116.963	160.933
	2018	126.791	84.096	121.036	152.103
	2019	129.513	91.078	121.204	156.804
	2020	141.600	101.766	129.971	174.211
25-29 urte	2016	99.087	51.550	94.239	125.362
	2017	102.079	58.606	91.943	136.370
	2018	98.423	60.047	92.477	123.512
	2019	101.921	64.578	93.428	128.996
	2020	111.526	72.095	99.695	143.901
30-34 urte	2016	80.917	33.347	75.945	107.402
	2017	84.480	40.975	74.224	118.975
	2018	83.052	45.285	77.003	108.021
	2019	86.785	50.041	78.190	113.741
	2020	94.898	55.690	87.067	131.259

## 4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera


### DEFINIZIOA:

Zer ehunekotan igo beharko litzatekeen 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbia, bere kabuz merkatu libreko etxebizitza bat (berri zein bigarren eskukoa) erosi ahal izateko, sinatutako hipotekaren lehenengo hilerokoa ordaintzera gehienez ere bere soldataren % 30 bideratuko balu.

Etxebizitza libre bat erosteko diru-sarreretan behar den igoeraren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza libre bat erosteko diru-sarreretan behar den igoera Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)





**4.taula.** Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoeraren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	78,8	36,5	74,0	103,5
	2017	83,7	44,2	74,0	116,3
	2018	80,3	48,8	74,5	101,5
	2019	86,0	55,5	77,9	108,9
	2020	95,5	61,9	84,6	122,9
Emakumeak 18-34 urte	2016	99,0	51,9	93,6	126,5
	2017	101,8	58,4	91,1	137,6
	2018	99,9	61,3	93,5	123,4
	2019	105,3	66,9	96,4	130,6
	2020	110,1	78,7	98,4	139,5
Gizonak 18-34 urte	2016	66,5	27,1	62,0	89,5
	2017	70,0	33,4	61,0	100,1
	2018	69,5	34,6	64,1	89,5
	2019	78,4	43,9	70,7	100,4
	2020	81,0	53,9	70,9	106,3
18-24 urte	2016	165,0	102,3	157,8	201,6
	2017	168,0	110,3	153,8	215,5
	2018	161,6	107,1	153,3	192,4
	2019	158,1	115,8	147,0	189,9
	2020	173,1	126,1	157,8	211,3
25-29 urte	2016	96,9	50,3	91,6	124,1
	2017	101,7	58,3	91,0	137,4
	2018	92,1	58,5	86,0	114,7
	2019	93,1	61,4	84,7	116,9
	2020	99,7	65,3	88,5	127,6
30-34 urte	2016	67,2	27,6	62,6	90,2
	2017	71,6	34,7	62,5	102,0
	2018	68,0	38,6	62,6	87,7
	2019	69,6	41,8	62,3	90,5
	2020	73,8	43,9	69,5	104,7

## 5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria


### DEFINIZIOA:

Etxebizitza libre batek gehienez izan beharko lukeen azalera eraikia, metro koadrotan, 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek hipoteka-mailegu baten bitartez erosi ahal izateko (merkatu prezioan), hipoteka-maileguaren lehenengo hilerokoa ordaintzera gehienez ere soldata garbiaren % 30 bideratuko balu.

Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko azalera onargarriaren bilakaera Euskadin (m<sup>2</sup>-tan)



Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko azalera onargarria Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (m<sup>2</sup>-tan)



**5. taula.** Etxebizitza libre bat erosteko gehieneko azalera onargarriaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (m<sup>2</sup>-tan)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	50,1	72,1	52,2	41,8
	2017	48,4	67,8	51,3	39,0
	2018	49,1	65,4	51,3	41,4
	2019	47,3	63,0	49,7	39,9
	2020	45,8	64,6	47,8	38,6
Emakumeak 18-34 urte	2016	45,0	64,8	46,9	37,5
	2017	44,0	61,7	46,7	35,5
	2018	44,3	60,3	46,3	37,4
	2019	42,9	58,7	45,0	36,2
	2020	42,6	58,5	44,5	35,9
Gizonak 18-34 urte	2016	53,8	77,4	56,0	44,9
	2017	52,3	73,3	55,5	42,2
	2018	52,3	72,2	54,6	44,1
	2019	49,3	68,1	51,8	41,6
	2020	49,5	67,9	51,7	41,7
18-24 urte	2016	33,8	48,7	35,2	28,2
	2017	33,2	46,5	35,2	26,7
	2018	33,9	47,0	35,4	28,5
	2019	34,1	45,4	35,8	28,8
	2020	32,8	46,2	34,2	27,6
25-29 urte	2016	45,5	65,5	47,4	37,9
	2017	44,1	61,8	46,8	35,5
	2018	46,1	61,3	48,2	38,9
	2019	45,6	60,7	47,8	38,5
	2020	44,8	63,2	46,8	37,8
30-34 urte	2016	53,6	77,1	55,8	44,7
	2017	51,8	72,6	55,0	41,8
	2018	52,7	70,2	55,1	44,5
	2019	51,9	69,1	54,5	43,8
	2020	51,5	72,6	52,1	42,0

## 6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea


### DEFINIZIOA:

Zenbat metro karratuko aldea dagoen salerositako etxebizitza librean batez besteko azalera eraikiaren eta 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeko bere hileko soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe, erosi ahal izango lukeen etxebizitzaren gehieneko azaleraren artean.

Merkatu librean salerositako etxebizitzaren batez besteko azaleraren eta gehieneko azalera onargarriaren arteko aldearen bilakaera Euskadin (m<sup>2</sup>-tan)



Merkatu librean salerositako etxebizitzaren batez besteko azaleraren eta gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (m<sup>2</sup>-tan)



**6. taula.** Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldearen bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (m<sup>2</sup>-tan)

		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	41,6	30,9	40,4	44,1
	2017	43,1	37,3	40,6	46,1
	2018	42,5	40,8	41,3	42,8
	2019	43,1	41,8	40,8	44,8
	2020	47,6	51,7	42,8	50,1
Emakumeak 18-34 urte	2016	46,7	38,2	45,7	48,4
	2017	47,5	43,4	45,2	49,6
	2018	47,3	45,9	46,3	46,8
	2019	47,5	46,1	45,5	48,5
	2020	50,8	57,8	46,1	52,8
Gizonak 18-34 urte	2016	37,9	25,6	36,6	41,0
	2017	39,2	31,8	36,4	42,9
	2018	39,3	34,0	38,0	40,1
	2019	41,1	36,7	38,7	43,1
	2020	43,9	48,4	38,9	47,0
18-24 urte	2016	57,9	54,3	57,4	57,7
	2017	58,3	58,6	56,7	58,4
	2018	57,7	59,2	57,2	55,7
	2019	56,3	59,4	54,7	55,9
	2020	60,6	70,1	56,4	61,1
25-29 urte	2016	46,2	37,5	45,2	48,0
	2017	47,4	43,3	45,1	49,6
	2018	45,5	44,9	44,4	45,3
	2019	44,8	44,1	42,7	46,2
	2020	48,6	53,1	43,8	50,9
30-34 urte	2016	38,1	25,9	36,8	41,2
	2017	39,7	32,5	36,9	43,3
	2018	38,9	36,0	37,5	39,7
	2019	38,5	35,7	36,0	40,9
	2020	41,9	43,7	38,5	46,7

## II. Atala



Etxebizitza  
librea alokairuan  
hartzearen  
inguruko  
adierazleak



## Etxebizitza librea alokairuan hartzearen inguruko adierazleak

**7.** Etxebizitza librea alokatzeko kostua **% 54,7**

**8.** Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria **389 €**

**9.** Merkatuko alokairu-errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea **320 €**


**10.** Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera **% 82,4**

## 7. Etxebizitza librea alokatzeko kostua


### DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzera (bestelako gastu gehigarriak, hala nola, fidantzak, hornidura-altak, bitartekarien ordainsariak... kontuan izan barik).

Etxebizitza libre bat alokairuan hartzeak dakarren kostuaren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza libre bat alokairuan hartzeak dakarren kostua Euskadin 2020an\*, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)



\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.



**7. taula.** Etxebizitza librea alokairuan hartzeak dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)

		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	47,0	40,6	47,7	48,8
	2017	49,4	43,1	49,9	51,4
	2018	50,0	46,2	50,0	51,3
	2019	51,3	48,3	51,0	52,9
	2020*	54,7	49,2	53,7	56,1
Emakumeak 18-34 urte	2016	52,3	45,2	53,1	54,4
	2017	54,3	47,4	54,8	56,5
	2018	55,4	50,1	55,4	56,9
	2019	56,7	51,9	56,3	58,4
	2020*	58,8	54,3	57,7	60,3
Gizonak 18-34 urte	2016	43,8	37,8	44,4	45,5
	2017	45,7	39,9	46,2	47,5
	2018	47,0	41,8	47,0	48,2
	2019	49,3	44,7	48,9	50,7
	2020*	50,6	46,8	49,7	51,9
18-24 urte	2016	69,7	60,1	70,7	72,4
	2017	72,1	62,9	72,8	75,0
	2018	72,5	64,3	72,5	74,4
	2019	71,3	67,1	70,8	73,4
	2020*	76,4	68,7	75,0	78,3
25-29 urte	2016	51,8	44,7	52,5	53,8
	2017	54,2	47,3	54,8	56,4
	2018	53,3	49,2	53,3	54,6
	2019	53,3	50,2	52,9	54,9
	2020*	55,9	50,2	54,9	57,3
30-34 urte	2016	44,0	37,9	44,6	45,7
	2017	46,1	40,3	46,6	48,0
	2018	46,6	43,0	46,6	47,8
	2019	46,8	44,1	46,5	48,2
	2020*	48,6	43,7	49,3	51,5


\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

## 8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria


### DEFINIZIOA:

Alokairuko etxebizitza libre batek izan behar lukeen errenta, alokairua ordaintzeak ez lezan 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbiaren % 30 gainditu.

Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren bilakaera Euskadin (eurotan)



Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)



**8. taula.** Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	404	405	407	399
	2017	391	391	393	386
	2018	400	385	403	404
	2019	401	385	403	404
	2020	389	384	392	392
Emakumeak 18-34 urte	2016	363	364	366	359
	2017	355	356	358	351
	2018	361	355	364	364
	2019	363	358	365	366
	2020	362	348	364	365
Gizonak 18-34 urte	2016	434	435	437	429
	2017	422	423	425	417
	2018	426	425	429	429
	2019	417	416	420	421
	2020	420	404	423	424
18-24 urte	2016	273	273	275	270
	2017	268	268	270	265
	2018	276	276	278	278
	2019	289	277	291	291
	2020	279	275	280	281
25-29 urte	2016	367	368	370	363
	2017	356	356	358	352
	2018	376	361	378	379
	2019	386	371	388	389
	2020	381	376	383	384
30-34 urte	2016	432	433	435	427
	2017	418	419	421	413
	2018	430	413	433	433
	2019	439	422	442	443
	2020	438	432	426	427

## 9. Merkatuko alokairu errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea


### DEFINIZIOA:

Zenbat euroko aldea dagoen alokairuko etxebizitzaren batez besteko alokairu-errentaren eta 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek, alokairua ordaintzeko gehienez bere hileko soldata garbiaren % 30 bideratuko balu, ordaindu ahal izango lukeen errenta onargarriaren artean.

Merkatuko batez besteko errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldearen bilakaera Euskadin (eurotan)



Merkatuko batez besteko errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea Euskadin 2020an\*, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)



\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

**9. taula.** Merkatuko alokairu errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (eurotan)

		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	229	143	240	251
	2017	252	171	261	275
	2018	267	208	269	286
	2019	285	235	282	308
	2020*	320	246	310	341
Emakumeak 18-34 urte	2016	270	184	281	291
	2017	288	206	296	310
	2018	306	238	308	326
	2019	323	261	320	346
	2020*	347	282	337	368
Gizonak 18-34 urte	2016	199	113	210	221
	2017	221	140	229	244
	2018	241	167	243	261
	2019	268	204	265	291
	2020*	289	226	278	309
18-24 urte	2016	361	274	372	381
	2017	375	294	384	396
	2018	391	316	394	412
	2019	397	342	395	421
	2020*	431	355	421	452
25-29 urte	2016	266	180	277	288
	2017	287	206	296	309
	2018	291	231	293	311
	2019	300	249	297	323
	2020*	328	254	318	349
30-34 urte	2016	201	115	212	223
	2017	225	144	233	248
	2018	237	179	239	257
	2019	246	198	243	269
	2020*	272	198	275	306


\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

# 10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera


## DEFINIZIOA:

Zer ehunekotan igo beharko litzatekeen 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko soldata garbia, merkatu libreko etxebizitza bat alokatzeko gehienez bere hileko soldataren % 30 bideratuko balu.

Etxebizitza libre bat alokatzeko diru-sarreretan behar den igoeraren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza libre bat alokatzeko diru-sarreretan behar den igoera Euskadin 2020an\*, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)



\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

**10. taula.** Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoeraren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)

		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	56,7	35,3	59,0	62,8
	2017	64,7	43,8	66,3	71,3
	2018	66,6	54,0	66,6	70,9
	2019	71,2	61,1	70,0	76,3
	2020*	82,4	64,0	79,1	86,9
Emakumeak 18-34 urte	2016	74,4	50,6	76,9	81,2
	2017	80,9	58,0	82,7	88,2
	2018	84,7	67,0	84,7	89,5
	2019	88,9	72,9	87,6	94,6
	2020*	96,0	81,0	92,5	100,9
Gizonak 18-34 urte	2016	45,9	26,0	48,0	51,6
	2017	52,4	33,0	53,9	58,5
	2018	56,7	39,4	56,7	60,7
	2019	64,2	49,1	63,1	69,1
	2020*	68,8	55,9	65,8	73,0
18-24 urte	2016	132,3	100,5	135,6	141,3
	2017	140,2	109,7	142,6	149,8
	2018	141,8	114,3	141,8	148,0
	2019	137,5	123,5	135,9	144,6
	2020*	154,7	129,0	150,2	161,1
25-29 urte	2016	72,6	49,0	75,0	79,3
	2017	80,7	57,8	82,6	88,0
	2018	77,6	64,1	77,6	82,2
	2019	77,7	67,2	76,5	83,0
	2020*	86,2	67,5	82,9	90,9
30-34 urte	2016	46,5	26,5	48,6	52,2
	2017	53,8	34,3	55,3	60,0
	2018	55,2	43,5	55,2	59,2
	2019	56,1	46,9	55,0	60,8
	2020*	62,1	45,8	64,5	71,6

\* 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

### III. Atala



Etxebizitza  
babestua  
eskuratzearen  
inguruko  
adierazleak





## Etxebizitza babestua eskuratzearen inguruko adierazleak

**11.** Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua **% 28,9**

---


**12.** Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua **% 27,2**

# 11. Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua


## DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz etxebizitza babestu bat erosteko sinatutako hipotekaren lehen kuota ordaintzera.

Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko dakarren kostuaren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko dakarren kostua Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)



**11. taula.** Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeak dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)


		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	31,6	28,3	30,2	34,2
	2017	31,3	29,6	30,0	32,2
	2018	32,2	32,9	32,6	33,5
	2019	31,0	31,6	30,6	37,7
	2020	28,9	29,9	27,0	38,6
Emakumeak 18-34 urte	2016	35,2	31,5	33,6	38,1
	2017	34,3	32,5	33,0	35,4
	2018	35,7	35,7	36,1	37,1
	2019	34,3	34,0	33,8	41,6
	2020	31,1	33,0	29,0	41,5
Gizonak 18-34 urte	2016	29,4	26,3	28,1	31,9
	2017	28,9	27,4	27,8	29,8
	2018	30,3	29,8	30,6	31,5
	2019	29,8	29,3	29,4	36,2
	2020	26,8	28,4	25,0	35,7
18-24 urte	2016	46,9	41,9	44,7	50,8
	2017	45,6	43,2	43,8	47,0
	2018	46,7	45,8	47,3	48,6
	2019	43,1	43,9	42,5	52,3
	2020	40,4	41,8	37,7	53,9
25-29 urte	2016	34,8	31,2	33,2	37,7
	2017	34,3	32,5	32,9	35,4
	2018	34,3	35,1	34,7	35,7
	2019	32,2	32,8	31,8	39,1
	2020	29,5	30,5	27,6	39,4
30-34 urte	2016	29,6	26,5	28,2	32,0
	2017	29,2	27,6	28,0	30,1
	2018	30,0	30,7	30,4	31,2
	2019	28,3	28,9	27,9	34,4
	2020	25,7	26,6	24,8	35,4

# 12. Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko kostua


## DEFINIZIOA:

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen bere kabuz etxebizitza babestu baten alokairua ordaintzera (kontratua formalizatzeak ekar litzakeen gainerako gastuak aintzat hartu gabe).

Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko dakarren kostuaren bilakaera Euskadin (%/soldata garbia)



Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko dakarren kostua Euskadin 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)




**12. taula.** Etxebizitza babestu bat alokairuan eskuratzeko dakarren kostuaren bilakaera, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%/soldata garbia)

		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira 18-34 urte	2016	19,9	19,9	19,8	20,1
	2017	25,3	25,3	25,1	25,6
	2018	23,9	24,9	23,7	23,7
	2019	25,6	26,6	25,4	25,4
	2020	27,2	27,5	27,0	27,0
Emakumeak 18-34 urte	2016	22,1	22,1	22,0	22,4
	2017	27,8	27,8	27,6	28,1
	2018	26,5	27,0	26,3	26,3
	2019	28,3	28,6	28,1	28,0
	2020	29,2	30,4	29,0	29,0
Gizonak 18-34 urte	2016	18,5	18,5	18,4	18,7
	2017	23,4	23,4	23,3	23,7
	2018	22,5	22,5	22,3	22,3
	2019	24,6	24,7	24,4	24,4
	2020	25,1	26,2	25,0	24,9
18-24 urte	2016	29,5	29,4	29,3	29,8
	2017	36,9	36,8	36,7	37,3
	2018	34,7	34,6	34,4	34,4
	2019	35,5	37,0	35,3	35,2
	2020	37,9	38,5	37,7	37,6
25-29 urte	2016	21,9	21,9	21,8	22,2
	2017	27,8	27,7	27,6	28,1
	2018	25,5	26,5	25,3	25,3
	2019	26,6	27,7	26,4	26,4
	2020	27,7	28,1	27,6	27,5
30-34 urte	2016	18,6	18,6	18,5	18,8
	2017	23,6	23,6	23,5	23,9
	2018	22,3	23,2	22,1	22,1
	2019	23,3	24,3	23,2	23,2
	2020	24,2	24,5	24,8	24,7



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD



Emaitza  
esanguratsuenak



Jarraian, ikerketa honetan aztertu diren 12 adierazleetako bakoitzaren emaitzak azalduko ditugu. Txosten honetako emaitzak irakurtzerakoan kontuan izan behar da adierazleak eratzeak abstrakzio- eta sinplifikazio-eraketak eskatzen dituela; beraz, ezin dira kasu indibidualak identifikatu. Bi hipotesi hartzen dira aintzat: alde batetik, gazteak batez besteko soldata jasotzen duela eta, bestetik, erosten edo alokatzen diren etxebizitzak batez besteko prezioan (merkatu libreko batez besteko prezioan edota etxebizitza babestuen batez besteko prezioan, kasuaren arabera) eskuratzen direla. Hau da, soldaten desberdintasunak, bai eta etxebizitzaren ezaugarrien arabera (etxebizitza mota, kokalekua, kontserbazio-egoera...) duten prezioen desberdintasunak ere alde batera uzten dira. Baina hori da, izan ere, adierazle hauen indarra eta balioa, hau da, gazte batek, berak bakarrik, etxebizitza erosteko edo alokatzeko dituen ahalbide ekonomikoak modu laburtuan definitu ditzaketela, denboran zehar eta eremu geografiko ezberdinetan aztertu eta konparatzeko.

Era berean, azpimarratu behar da etxebizitza eskuratzeko orduan diruak bakarrik ez duela baldintzatzen (hau da, soldata eta etxebizitzaren prezioak), prozesu horretan etxebizitzaren eskaintza, gazteen lan-ibilbideak eta bankuak hipoteka-maileguak (eta honen baldintzak) emateko erraztasunak ere, besteak beste, parte hartzen baitute. Hala ere, bi faktore nagusi horiek, lan-merkatuak eta etxebizitzaren merkatuak, nola eboluzionatzen duten aztertzeak laguntzen du ulertzen gazteek zer zailtasun objektibo dituzten familia-etxetik irtetea erabakitzen dutenean.

Gainera, 2020ko datuak testuinguruan kokatzeko, kontuan izan behar da COVID-19aren pandemiaren etorrerarekin, eta osasun-arlokoak ez diren esparruetan (lan-merkatua, higiezinaren merkatua, mugikortasun-jarraibideak, familia-estrategiak, bizigarritasun-baldintzak...) ekarri dituen ondorioekin, 2020an hautsi egin direla aurreko urteetan garatzen ari ziren zenbait jarraibide.

Gazteak izan dira pandemiak eragindako krisi sozioekonomikoaren ondorio larriak izan dituzten kolektiboetako bat, aurreko urteetatik gazteek zuten kalteberatasun handiagoa dela eta. Lanaren ikuspegitik, eragin hori honetako honetan gauzatu da: lan-merkatuko paralisaren aldirik gorenean eta Enpleguaren Aldi Baterako Erregulazioko Espedienteen (ERTE) estaldurarik handienean, 2021eko martxoa eta ekaina bitartean, hain zuzen ere <sup>2</sup>, gazteak izan ziren langabeziaren bat-bateko gehikuntzak gehien kaltetu zituenak, eta, era berean, proportzionalki, gazteek jaso ahal izan zituzten gehien aldi baterako lan-erregulazioen eraginpeko pertsonentzat aurreikusitako laguntzak, alde aurretik langabezia-prestazioak jasotzea eragozten zieten baldintzak malgututa<sup>3</sup>. Gainera, enpleguari eutsi zioten gazteen artean, soldatak % 2,8 murriztu ziren termino garbieran<sup>4</sup>.

Bestalde, Euskadin etxebizitza librearen prezioa urtean % 5,7 igo zen salerosketen kasuan, eta % 3,4 alokairu-errenten kasuan.

Horrek guztiak gazteen emantzipatzeko gaitasunaren beheranzko joera bizkortu zuen, baita enpleguaren sorrera urteko bigarren erdian suspertzen hasi zenean ere. Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa % 35,1ekoa izan zen 2020an (2019an baino ehuneko 3,4 puntu txikiagoa).

<sup>2</sup> Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuen arabera, 2020ko ekainean Euskadin 60.276 pertsona zeuden kotizaziopeko enplegu-prestazioaren onuradun, aldi baterako lan-erregulazio baten ondorioz etendura eta langabezia partzialagatik. Urtebete geroago, 2021eko ekainean, 1.383 pertsona baino ez.

<sup>3</sup> INSTITUTO DE LA JUVENTUD eta CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA (2020). Juventud en riesgo. Análisis de las consecuencias socioeconómicas de la COVID-19 sobre la población joven en España. Informe 2 [linean]. Hemen eskuragarri: <<http://www.injuve.es/observatorio/formacion-empleo-y-vivienda/consecuencias-economicas-covid-19-en-la-juventud-informe-2>> [Kontsulta: 2021/09/28].

<sup>4</sup> Beherakada horretan, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) azpimarratu zuen bezala, eragina izan zuen ERTEK eragindako pertsona landunek jaso zituzten prestazioak ez zirela soldata gisa zenbatu. Ikus. <<https://www.ine.es/daco/daco42/etcl/etcl0220.pdf>> [Kontsulta: 2021/09/27].

## 1. Etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua

2020 ez zen urte aproposa izan gazte batentzat etxebizitza libre bat erosteko. Lan-testuinguru negatiboari, termino garbietan soldata-murrizketa ekarri zuenari, Euskadin etxebizitza librearen prezioaren igoera gehitu behar zaio. Horren ondorioz, etxebizitza libre bat erosteak dakarren kostu ekonomikoa, hau da, gazte batek etxebizitza libre bat erosteko kontratatutako hipotekaren lehen kuota ordaintzeko erabili beharko lukeen soldataren ehunekoa % 58,7 izan zen, 2019an baino ia hiru puntu altuagoa (% 55,8 izan zen 2019an), eta hori kontuan hartu gabe, beste gastu gehigarriak, hala nola, sarreraren zenbatekoa ordaintzeko alde aurreko aurrezkiak; izan ere, gazte asko etxebizitza eskuratzeko edozein saio egitetik kanpo geratzen dira aurrezkiak ez izanagatik.

Jakina, soldata txikiak dituzten kolektiboek (eta, aldi berean, lan-merkatuan presentzia txikiagoa dutenek) are kostu handiagoa hartu beharko lukete beren gain etxebizitza libre bat erosteko: emakume gazteentzat, kostua soldata garbiaren % 63,0raino igoko litzateke, eta 18 eta 24 urte bitartekoentzat, berriz, % 81,9raino. Adinak gora egin ahala, batez besteko soldatek ere gora egiten dute eta etxebizitza libre bat jabetzan eskuratzeko kostua txikiagoa da, baina, hala ere, % 50etik gora mantentzen da.

Lurraldean araberako aldeak oso nabarmenak dira; Gipuzkoan, non etxebizitza librean batez besteko salerosketa-prezioak Euskadiko batez bestekoa baino handiagoak diren, gazteek beren soldataren % 66,9 bideratu beharko lukete etxebizitza libre bat erosteko hipoteka-kuota ordaintzera, eta Araban (non salgai dauden etxebizitzaren prezioak merkeagoak diren) soldataren % 48,6 bideratu beharko lukete.

## 2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria

Kasu honetan, gazte batek bere kabuz etxebizitza bat erosi ahal izateko, etxebizitza horrek izan beharko lukeen gehieneko prezioa kalkulatu da, betiere sinatutako hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeko gazte horrek hileko soldata garbiaren % 30 bidera dezan, eta ez gehiago. % 30eko muga hori ez da arbitrarioa, finantza-erakundeek mailegu-eskaera baten bideragarritasuna ebaluatzeko erabiltzen duten irizpideetako bat baita. Adierazle honek ez du aintzat hartzen etxebizitzaren benetako salneurria; aitzitik, balioespen teorikoa egiten du gazteen soldatak eta hipoteka-maileguen baldintzak kontuan hartuta.

2020an gazte batek finantzatu lezakeen gehieneko prezioa, gehiegi zorpetu gabe eta behar diren aurretiko berme guztiak dituela (aurretiko aurrezkiak, diru-sarreraren egonkortasuna, eta abar) oinarri hartuta, noski, 114.254 eurokoa izan da. Gehieneko salneurri onargarri hori 2018an eta 2019an izandakoen antzekoa da. Egonkortasun horrek harrigarria dirudi kontuan izanda 2020an hipoteken merkatuko interes-tasa efektiboak minimo historikoetara jaitsi direla, baina bat etorri dira etxebizitzaren prezioen igoerarekin eta soldata-jaitsierarekin. Beraz, ondorio praktikoetarako, bi elementu horiek konpentsatu egin dira bata bestearekin, eta erosketaren gehieneko prezio onargarria oso antzeko kopuruetan geratu da azken urteotan.

Gehieneko salneurri onargarriari dagokionez, ia ez dago alderik lurralde historikoen artean, soldaten arteko aldeak txikiak baitira eta finantzazio-baldintzak berdinak; baina badaude alde aipagarriak gizon eta emakumeen artean eta, bereziki, adin-taldeen artean, horien atzean soldaten ezberdintasunak baitaude; horrela, esaterako, 18 eta 24 urte bitarteko gazte soldatadun batek gehienez 81.804 euroko etxebizitza ordaindu ahal izango luke, baina 30 eta 34 urte bitarteko batek 128.506 euroko bat erosi lezake bere kabuz.



### 3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea

Nahiz eta gazte batek 2020an ordain lezakeen gehieneko prezio onargarria 2018. eta 2019. urteekiko egonkor mantendu den, etxebizitza libreen batez besteko salerosketa-prezioaren igoerak bi prezioen arteko aldea handitzea ekarri du. Zehazki, Euskadin, alde hori 100.000 eurotik gorakoa da 2020an (109.150 euro). Horrek gazteen bizitegi-bazterketa areagotzea ekar dezake, etxebizitzak garestitzen jarraitzen badute.

Lurralde historikoen arteko parekotasun eza oso nabaria da, oso alde handiak baitaude etxebizitza libreen salneurrien artean. Gipuzkoan merkaturako prezioaren eta gazte batek bere kabuz ordain lezakeenaren arteko aldea 141.506 eurotara iristen da. Alde hori Bizkaian gertatzen dena baino handiagoa da (97.303 euroko aldea dago Bizkaian) eta, batez ere, Araban baino askoz handiagoa (69.751 eurokoa azken hau).

### 4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera

Gazte batek etxebizitzaren merkatura sartzeko aukerak beste ikuspegi batetik neurtzeko asmoz, beste kalkulu hau egin da: zein soldata izan beharko lukeen gazte batek egungo merkatu librearen salneurria duen etxebizitza bat erosi ahal izateko, bere kabuz, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeak soldata garbiaren % 30 bideratzea dakarkiola (eta ez gehiago) kontuan harturik. Gero, soldata teoriko hori jasotzen duenarekin (gazteen batez besteko soldatarekin) erkatu da. Hortik abiatuta, etxebizitza libre bat egungo merkatu-prezioan eskuratu ahal izateko egungo soldata zer ehunekotan igo beharko litzatekeen zehaztu daiteke.

2020an, soldatapeko gazte baten soldata % 95,5 handiagoa izan beharko litzateke merkatu libreko etxebizitza, egungo prezioan, berak bakarrik erosi ahal izateko, hipoteka-maileguaren lehen hilerokoa ordaintzeko gehienez bere soldata garbiaren % 30 bideratuko balu. Horrek esan nahi du egungo soldata bikoiztu egin beharko litzatekeela ia. 30 eta 34 urte bitarteko soldatapekoen kasuan ere (teorian batez bestekoa baino soldata handiagoa jasotzen dutenak) % 73,8 igo beharko litzateke bere soldata. 18-24 urteko soldatapeko gazteen kasuan, beharrezkoa den hazkundera % 173,1ekoa bezain kopuru sinesgaitzetara iristen da.

Emakumeen artean (gizonek baino batez besteko soldata txikiagoak izaten dituzte) eta Gipuzkoan (gainerako lurraldeetan baino etxebizitza garestiagoak dituzte, batez beste), beharrezko igoerak % 100etik gorakoak dira.

Zifra horiek lagungarriak dira ulertzeko zergatik diren hain gutxi bakarrik emantzipatzen diren gazteak.

## 5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria

Batez besteko soldata duen gazte batek etxebizitza libre bat jabetzan bilatzea erabakitzen badu, dauden eskaintza gehienak bere irismenetik kanpo daudela ikusten du. Egoera hori jasotzen dute aurreko adierazleek. Beste aukera bat, erosketari uko egin gabe, azalera txikiagoko etxebizitzak eskuratzea da, guztizko prezio txikiagoa izaten baitute (ez metro koadroko).

Gehieneko azalera onargarria kalkulatzeko erlazioan jartzen dira, alde batetik, merkatu librean etxebizitzek duten batez besteko salneurria (metro koadroko) eta, bestetik, gazteen batez besteko soldata. Horrela, posible da ezartzea zenbateko azalera izan beharko lukeen, gehienez, etxebizitza batek, soldatapeko gazte batek erosi ahal izateko, hipoteka-mailaguaren lehen hilerokoa ordaintzera soldata garbiaren % 30 bideratuz gero.

2020an, etxebizitza librean prezioen igoeraren ondorioz, erosteko gehieneko azalera onargarriak behera egiten jarraitu du Euskadin, eta 45,8 m<sup>2</sup>-koa izan da. Tamaina horretako etxebizitzak ez dira ohikoak merkatu librean.

Lurralde historikoen arteko aldeak nabariak dira: Araban gazte batek, bere kabuz, 64,6 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eros lezake egungo salneurrian, Bizkaian 47,8 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eta Gipuzkoan eros lezakeen etxebizitza ez litzateke 40 m<sup>2</sup>-tara iritsiko (38,6 m<sup>2</sup>, hain zuzen ere).

## 6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea

Euskadiko merkatu librean saldu eta erosi diren etxebizitzek batez besteko azalera eraikiak ia ez du aldaketarik izan azken hamarkadan eta 2020an 93,4 m<sup>2</sup>-koa izan da. Konparatzen bada azalera hori gazte batek, hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzeko bere soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe, eros lezakeenarekin (45,8 m<sup>2</sup> 2020an, aurreko adierazlean ikusi dugun moduan), antzeman dezakegu saltzen diren etxebizitzek batez besteko azaleraren eta gazte batek eros lezakeenaren arteko aldea 47,6 m<sup>2</sup>-koa dela.

Adierazle honen bilakaera negatiboa izan da, aldea handitu baita azken bost urteotan, 2016an 41,6 m<sup>2</sup>-koa izan zen eta 2020an 47,6 m<sup>2</sup>-koa.

Kolektiboen arabeko analisiak erakusten digu emakumeen artean, 25 urtetik beherakoan artean eta Gipuzkoan, bai eta Araban ere (azken lurralde honetan saldu eta erosten diren etxebizitzek tamaina batez bestekoa baino handiagoa izaten da), etxebizitza librean batez besteko azaleraren eta gazte batek bere kabuz eros lezakeen gehieneko azalera onargarriaren arteko aldeak 50 m<sup>2</sup>-koak baino handiagoak direla.

## 7. Etxebizitza librea alokatzeko kostua

Merkatu librean etxebizitza alokatzeko kostua fidantzen batez besteko prezioaren arabera kalkulatu da, Eusko Jaurlaritzaren Alokairu Merkatuaren Estatistikak (EMA) jasotzen dituen datuetatik abiatuta. Euskadin fidantzak gordailutzea nahitaezkoa da 2015eko irailaren 26tik aurrera formalizatutako ohiko erabilerako etxebizitza guztien alokairu-kontratu guztietarako, etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamendu guztietarako (sasoiko alokairuak barne) eta data horretatik aurrera egiten diren aurreko kontratuen berrikuspenetarako<sup>5</sup>.

2020an, gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren erdia baino gehiago (% 54,7) bideratu beharko luke alokairu-errenta ordaintzera. Kasu honetan lurralde historikoen arteko aldeak ez dira erosketan bezain nabarmenak, baina balioak gainzorpetzearen mugaren gaineratik daude, bai eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean ere, nahiz eta hauek soldata handiagoak jaso. Gipuzkoak jarraitzen du izaten etxebizitza bat eskuratzeko esfortzurik handiena eskatzen duen lurraldea.

Gainera, gazte batek etxebizitza bat berak bakarrik alokatzeko egin behar duen ahalegin ekonomikoa handitu egin da azken urteetan, 2016an soldata garbiaren % 47,0 izatetik 2020an % 54,7 izatera igaro baita.

## 8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria

